Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Rosarito Gabiola Arbulu

Gernika-Lumo, Bizkaia
(1931-2011)



Aurkibidea

Biografia



San Juan kalean jaio zen 1931. urtean. Ama Gernika bertakoa zuen eta aita Amorotokoa. Alaba bakar bezala hazi zen, umetan hil baitzen bere neba bakarra. Karmeldarren ikastetxean ikasi zuen. Bonbardaketan beste herritar asko bezala, etxe barik gelditu ziren eta batetik bestera ibili ziren herrira bueltatu arte: hasieran, amamaren jaiotetxera joan ziren Ajangizko Mimentza baserrira; ostean, Nabarnizera osaba bat bertako abadea baitzen; eta, azkenik, Gernikako Errenteria auzora bueltatu ziren urte bereko urrian. Bere senarrarekin batera, Iñaki Solaguren ekin, egin genion grabazioa.

Zintak

GER-075

- **Proiektua**: Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data**: 2011-06-07
- **Iraupena**: 70 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Karmeldarren ikastetxean

- **Erref**: GER-075/002
- **Iraupena**: 0:04:01. **Hasi**: 00:01:21. **Bukatu**: 00:05:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Nahiz eta alaba bakar moduan hazi, ez zitzaion igarri. Karmeldarren ikastetxean ibili zen umetan. Hermana Carmen Abasolo aipatzen du, hainbat ikasgai ematen zizkien. 15 pezeta ordaintzen zuten hilabetean; aparteko

ikasgaiek prezioa igotzen zuten. Karmeldarretan uniformea janzten zuten. Irakasleak oso onak zirela dio, bi baino ez ziren euskaldunak, bermeotarrak hain zuzen ere.

2. Kalean erdaraz, etxean euskaraz

- **Erref**: GER-075/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:05:22. **Bukatu**: 00:06:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan dena egiten zuten erdaraz baita lagun artean ere. Kalean ere dena egiten zuten erdaraz. Etxean, ostera, dena euskaraz. Nagusitan ere ibili zen euskaltegian.

3. Lantegiak eta fraideak eskoletara mutikoen bila

- **Erref**: GER-075/009
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:14:35. **Bukatu**: 00:18:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ekonomia eta industria » Boom industriala

Laburpena:
Eskolarako liburu bakarra izaten zuten eta bertan izaten zituzten ikasgai guztiak. Pasealekuko eskoletan ibili ostean, Iñaki Bareñorenean hasi zen kontabilitatea ikasten eta 15 urterekin lanean hasi zen "Talleres de Gernika"n. Lanpostu desberdinak izan zituen erretiratu arte bertan ibili baitzen. Lehen lantegietatik eskoletara joaten ziren mutikoen bila lanerako. Fraideak ere horrela ibiltzen ziren. Iñakiren anaia 11 urterekin joan zen fraide.

4. Dantza egitea bekatu

- **Erref**: GER-075/023
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:35:30. **Bukatu**: 00:37:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Konfesatzerakoan dena kontatu behar izaten zuten. Neska-mutilak elkarrekin dantza egitea ere bekatu ei zen, abadeek ez baitzuten uzten. Pasealekuan neskek zaplaztekoak ematen zizkieten noizean behin mutilei.

5. 'Acción Católica'ko kideak

- **Erref**: GER-075/024

- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:37:07. **Bukatu**: 00:40:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Rosaritok eta Iñakik betidanik ezagutzen zuten elkar, baina biak ziren Acción Católicako kideak. Acción Católican zein ekintza egiten zituzten azaltzen dute. Talde desberdinak biltzen ziren: gizon zein emakume helduenak, gazteenak eta umeenak.

6. Umetako jolasak eta denbora-pasak

- **Erref**: GER-075/025
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:40:14. **Bukatu**: 00:42:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Kalean jolasten zuten umetan ez baitzen autorik egoten. Sokan, kanikaka, txorri-morro-piko-taio-ke, arandelarekin... Pasealekuko eskolako jolas-orduan bertako frontoian ibiltzen ziren pilotaka. "A guardias y ladrones"era ere aritzen ziren. Etxeetan ez zen telebistarik izaten; hori dela-eta, arrosarioa errezatu eta laster joaten ziren ohera. partxisean, dominoan, kartetan... aritzen ziren denbora pasatzeko.

7. Ateak beti zabalik; tostadak

- **Erref**: GER-075/026
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:42:48. **Bukatu**: 00:43:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna
- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:
Lehen etxeetako ateak zabalik egoten ziren. Etxe batean sartzerakoan "Ave María Purísima" esan behar izaten zen. Karnabaletan ere etxerik etxe joaten ziren tostadak jaten. Tostadak Kontzesio Egunez, Kandelerio Egunez, San Blasetan eta Karnabaletan egiten ziren.

8. Kandelerio Eguna eta Santa Ageda

- **Erref**: GER-075/027
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:43:58. **Bukatu**: 00:46:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Aisia » Jai-giroa » Kandelario Eguna

Laburpena:
Kandelerio Eguna beti izan da egun handia. Denak joaten ziren mezara kandela bedeinkatzera eta kalerik kale abesten. Iñakik abesten du Kandelerio Eguneko abestia. San Ageda bezperan abesten irten ahal izateko, baimena eskatu behar izaten zuten abestiaren letra erdaraz itzuliz. Gizonezkoak baino ez iren joaten abesten. Iñakik apur bat abesten du. Marijesietan ere mutilak bakarrik irteten ziren.

9. Marijesiak

- **Erref**: GER-075/028
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:46:36. **Bukatu**: 00:49:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:
Marijesiak lehen eta orain berdinak direla diote. Baina lehen abesten irteten zirenak lantegietako beharginak izaten ziren, gero lantegira joaten zirenak lanera. Batzen zuten dirua beraientzat izaten zen, gaur egun, ostera, beste ekintza batzuetarako izaten da. Inoiz ez da egon abestu ez den urterik.

10. Andra Mari eta San Roke jaiak

- **Erref**: GER-075/030
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:50:32. **Bukatu**: 00:52:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Gernikako jaiei hasiera emateko meza osteko salbea eta biribilketa egoten zen. Ama Birjinaren egunean meza nagusia ospatzen zen eta ostean Pasealekuko kioskoan bandaren baten kontzertua izaten zen.

11. Lehenengo bonbekin batera, etxetik ihesi

- **Erref**: GER-075/032
- **Iraupena**: 0:05:16. **Hasi**: 00:53:46. **Bukatu**: 00:59:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:
Hasierako bonbak bota zituztenean, etxetik irten ziren; baina aita eta aitita bertan geldi ziren gauza batzuk hartzen, eta bonbak gainera jausi arren,

irtetea lortu zuten. Mimentzara joan ziren, Ajangizera, amamaren jaiotetxera. Erreka izkinan zauritutakoak ikusi zituztela du gogoan. Handik Nabarrnizera joan ziren eta bertan egon zen urrira arte. Bere osaba Nabarnizko abadea zen.</p>

Transkripzioa

- Ta zuek Rosarito bonbardeoan?
- Beste pentsamentuegaz nau. Ni bonbardeoan akordetan naz urten gendule etxetik hasi zienien bonbak, eske kasi lelengoa edo laster jeusi zen gure etxera, ta urten gendun beste etxe batera, baia aitte ta aittitte geldittu ziren hondiño barruen hartzeko zeozer, ta jeusi jaken zati bet. Eta gure aittittek esaten eban, ba aittitte zaharraua ta geldittu zala ya konorte barik, konortiegaz bai, baia total desorienteta, ta berak ikusi ebala holan argitxu bet, ze guk argitxu bet eukitten gendule entradako etxien Jesusen bixotzegaz argitxue, ta ha argixe geldittu zala biztute ta grazixek hareri argixeri, haregaitzik jun zala hara urtetako kalera, ta haregaitzik argixetaitzik urten bala berak.Ta urten eban, alkartu giñen, ta jun giñen oinez Mimentzara, Mimentzaraiño. Ta beittu zelan akordetan nazen, juten giñen hortik San Juan Ibarratik San Juanen bizi giñen ta paseu San Juan Ibarretik, eta han erreka ondoan han milizianu batzuk erreta gixajoak bonbakaz edo zeozer ta: "Hermanos, ¡socorrerme!", karo erreta egon ziren. Ta gure amak-eta: "que ta vamos a socorrer si no tenemos nada, hemos salido corriendo, no tenemos nada, no podemos hacer nada". Gixajoak han ta gu pase giñen ta justu-justu jeusi zen bonba bat zubixe Errenterixeko zubixeri, baia puntetxue, osea ez aban apurtu erdixe, erdixe bez, holan puntie. Baia klaro, harek harrrixek eta harek urtetan urten zien ta niri aittek hartu ostan lepoan ta handik pase giñen ederto ze bidie bakarrik ounten, ostantzien euren amesa nik pentsetan dot izengo zala apurtzie zubixe, nik pentsetan dot ez urtetako hametik, baia ez aben aparau, grazixek. Ta handik jun giñen oiñez Mimentzara, ze gure amuma izen zan Mimentzakoa.
.-Nun dau hori, Mimentza?
- Mimentza Ajandizen, han lelengo baserrixe, Errenterixe segidu ta lelengo baserri dagona, handixe ederra, on be ondo jabonda dau, harek familixe direz, familikoa, gure amuma izen zan ta hara juan giñen, ez giñen nora joan ezebez barik. Ta handik ikusten sue zelan dan Gernikekoa, umiek; ta zaharrak ba barruen. Ta gero sartu oskuen habitaziño baten ume guztixeri, eurek lau-edo ez daitz zemat izen zien ta neu-ta, ta han koltxoiek bota-eta, eta edarto, ta gero oiñez Nabarnizera. Ta ni ba Nabarnizen geldittu nintzen urrira arte, ze klaro gure ama ta gure aitte etor zen Gernikera ya biher eitten arin tope eban leku bet, etxe bat bizitzeko Errenterixen, hor Apolinar, igual ezetuko dozu Apolinar, bueno ba horren etxien, etxien pisu bet euki eban libre ta han alkile eban, ta han korralien hasi zen gure aitte biherrien ze barberue izen zan: hartun sille bat etxetik ta ipiñi trapu bet ta afeittetan jentieri, dirue irebazten, irebazten. Ta gero han euki ebanien etor ziren ama ta danak, ta ni eureri izteko biherrien be geldittu nitzen Nabarnizen, ta urrixen gure izen eben niri sartun eskolara Nabarnizera, ta ni ez noiela Nabarnizera eskolara, hori pentsa bez, ta bost urte, baia terkie. Ta ba derrigorrez etor nintzen Gernikera ta ya segiduen kolejixora.
- Iñaki: Ta Nabarnizera, esan eizu zegaitzik joan ziñien Nabarnizera? Ze euki zendun?
- Hara joan giñen, euki gendun osaba bat, osaba bat euki gendun.
- Iñaki: Abadie.
- Ta pisu handixe, abadie, ta bera krixediegaz bizi zen. Ta klaro han hiru habitaziño edo lau-edo, on be esango neke zelakoan diezan harek

habitaziñoak ederto baten ta han ederto baten egon nitzen, bakotza beren ohien ta ondo, ta han ederto, ederto egon nitzen han umiekaz jolasten danak, osea.

12. Etxean kanpoko jendea

- **Erref**: GER-075/033
- **Iraupena**: 0:04:22. **Hasi**: 00:59:02. **Bukatu**: 01:03:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Rosaritoren etxea guztiz suntsituta gelditu zen bonbardaketaren ondorioz. Beraien etxean Donostiako soldadu batzuk egon ziren eta bere gurasoak haietako baten gurasoengana joan ziren gero Donostiara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-03

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com